



UMEAREN DATUAK

Izen-deiturak:

Jaioteguna:

Sexua:

Helbidea (kalea):

Zenbakia:

Solairua:

Postakodea:

Herria:

Herrialdea:

GURASOEN/TUTOREEN DATUAK

Izen-deiturak:

Telefonoa (Etxea, mobila, lana, ...):

E-ibidea:

Izen-deiturak:

Telefonoa (Etxea, mobila, lana, ...):

E-ibidea:

(E-maila edukitzekotan, izen ematearen konfirmazioa bidaliko da)

TXANDAK

Eskupilota (uztailaren 2tik 6ra)

Futbol (uztailaren 9tik 13ra)

Umearen arropa talla (2 kamiseta Astore eta prakak banatuko zaizkie)

Autobusa: **BAI** **EZ**

Udalekuetara lagunekin etorri ezkeru, idatzi euren izen-abizenak:

Baduzu gaixotasun edo alergiaren bat?

Inolako premia berezirik izanez gero, aipa ezazu:

OHARRA

Guraso edo tutorea izanda, NERE SEMEa/ALABA-ri "**Lemoako Udalekuak 2012**" udalekuetan parte hartzeko **BAIMENA EMATEN DIOT**, antolakuntzak proposatzen dituen aktibitate eta baldintzak ONARTUZ:

Sinatzailearen izen-abizenak

NA:

Sinadura:

Data:



IZEN-EMATEA

Prezioa: 190€ (garraioa gehigarrikoa 25€). Bi aste jarraian apuntatzen direnentzako, 10€ deskontua egongo da. Anai-arrebentzat eta Lemoatarrentzako gauza bera.

Ordainketa aldi bakarrean egin behar da:

- Izena emateko: **Ekainaren 15a** baino lehenago egin behar da ordainketa.
- Onartuen konfirmazioa **Ekainaren 18an** emango dira (emailez)
- **Fitxa honekin batera, ordainketaren agiria , argazki bat eta gizarte segurantzako txartelaren kopia bidali behar dizkiguzue (eskuz edo eskaneatuta posta elektronikora bidali).**

Eskuz (Lemoko udalan) E-mail bidez (info@jolastuzjokatu.org). Ordainketa agirian haurren izen-abizenak agertu beharko dira eta bertan agertzen den data zuen inskripzio data izango da. Eskaera kopurua gehiegizkoa bada, onarpenak inskripzio dataren arabera egingo dira. Udalekuetara joateko tokirik gabe geldituz gero, ordaindutakoa itzuli egingo zaizue.

Haurrak edozein gaixotasun edo alergia izanez gero, honi buruzko informazio zehatz guztia ere helarazi egin beharko diguzue.

Hezitzaileentzat baliagarria izan daitekeen edozein informazio gehigarri ere ematea eskertuko genizueke.

Udalekuen inguruko informazio guztia (matrikulazio fitxa, udalekuen datak, ezaugarriak...) **Lemoako udalan** eta jolastuzjokatu.org-en eskuragai duzue.

Jolastuz jokatu kultur elkartea kontu korrante zenbakiak:

BBK 2095-0368-80-9111912969

☆ Ikasle batek baja eman ezkerro , Jolastuz jokatu elkarteak esku geldituko da aurretiaz ordaindu duen diru itzulketa egingo den ala ez, kasuak kasu aztertuko dira.

☆ Ikasle batek udalekua uztea erabakiz gero, ez zaio dirurik itzuliko.



IRIZPIDE OROKORRAK

Haurrak **EUSKARA MENPERATZEA DERRIGORREZKOA DA.**

Udalekuko taldeak antolatzerakoan kontutan hartuko dira adierazitako lagun taldeak, baina ikasleen taldekatzea eta toki egokitzea antolatzaileen esku dago.

Guraso edo tutore legalen ardura izango da haurra adostutako egoitzan uztea (bus geltokian edota udalekuetako instalazioetan), baita jasotzea ere. Lehenik aipatutako ordutegietan.

Udalekuan zehar gurasoen bisitak guztiz debekatuta egongo dira, ez bada antolatzaileekin aurretiaz adostutako arrazoi nagusi bat dela medio. Era berean, ordaindutako prezioaren barne daude udalekuetan zehar sortutako gastu guztiak. Haurrek behar duten guztia izango dute udalekuek iraungo duten egunetan, beraz guztiz debekatuta egongo da haurrak janari, mugikorra edo edozein motatako materialekin bidaltzea.

Haurrak tratamendu mediku edo alergiaren bat baldin badu, gurasoek aurretiaz puntu honi buruzko informazio guztia helarazi beharko dute matrikula edo telefonoaren bidez. Era berean, medikamentuak eta hauei buruzko informazio zehatza udalekura eraman beharko ditu haurrak.

Material apurketak: udalekuetan dagoen materialaren ardura antolatzaileena da. Apurketen kasuak aztertuko dira eta materiala haurren batek apurtu badu, honen ordainketa guraso edo tutore legalaren ardura izango da.

Ikaslea izango da udalekuetara eramaten dituen gauza guztien arduradun bakarra eta ez antolatzaileak.

Antolatzaileek ez daukate erantzukizunik parte-hartzaileek udalekuetan egindako argazki eta grabazioez eta egin dezaketen erabilpenaz.

Eskatutako udalekuaren aukeraketari lehentasuna emango diogun arren, adin tartearen kontuan hartuta osatuko dira taldeak.

*Dokumentu honen bidez emandako datu guztiak, babespeko tasun zorrotzez erabiliak izango dira, datu pertsonalen babeserako abenduaren 13ko 15/1.999 lege organikoak dioen bezala. Dokumentu hau betetzerakoan, betetzaile partikularrak bere baimena ematen du bertan agertzen diren datuen tratamendurako. Datu hauek ez dira beste inori emango eta betetzailearen identifikazio zuzenerako, oinarrizko gestio eta administrazio lanak burutu ahal izateko beharrezkoak direnak dira.

Dokumentu hau betetzerakoan, betetzaileak bere borondatezko baimen zehatza ematen du, burututako ekintzetan zehar hartutako argazkiak www.jolastuzjokatu.org web orrian soilik argitaratzeko. Ez baduzu argazki hauek argitaratzerik nahi, mesedez, jarri X bat hurrengo atalean [] **EZ** dut baimenik ematen, burututako ekintzetan zehar hartu litezkeen irudiak www.jolastuzjokatu.org web orrian argitaratuak izateko.